

GAUZA SERIOAK

Gauza serioa da hau. Gasa irekita uztea bezain serioa.

Liburutegi osoa irentsia dut honezkero. Ale batzuk bitan edo hirutan. Entziklopedia barne. Eta ez dakit zergatik, agian, Zabalgarbiko ke berdeek edo Arraitz magaletik jaisten zaizkidan haize pozoituek jota, asperrak hil beharrean edo, berriz heldu diot Lur Hiztegi Entziklopedikoaren liburu *vintage* horietako bati. Eta hara non ikusi dudan definizioak aldatzen hasi direla:

LABE HOLLANDAR¹. *Izen arrunta. Sukaldaritza.* Jakiak prestatzeko, aurretik berotutako adreiluen bero metatua baliatzen duen labea. Sukaldeko tresna honen berezitasunik nabariena da gas-zirimola sortzen duela bere barruan, eta, horri esker, luze eusten diola beroari.

LABE HOLLANDAR². *Izen arrunta. Lagunartekoa.* «Labe holandarra izeki» / «Labe holandarrarena egin». Gizakien erritual soziala da, bereziki hedatua Aiaraldean. Kasuan kasuko puzkerlari edo putz-egilea ohatzean edo sofan datzalarik, ohekide bat edo gehiago ondoan dituelarik, eta negutegi lanak egingo dituen tapakian bilduta, bere barruko gasak askatu, kontzentratu eta banatzen ditu.

Erritualaren xedea da uneko ohekideari maitasuna erakustea eta, aldi berean, haren maitasunaren indarra probatzea, berdin dio bikote, senide ala igurtzi-laguna den.

Putza edo puzkerra egitea, bere lizunean, txera eta maitasun-keinua da Mendebaldeko kultura askotan. Izan ere, mendebaldarrek ohekidea etxerako moduko pertsona den jakiteko erabiltzen dute, tapaki azpian askatzen den gas-zirimola hori lodi-lodi bihurtzen baita ihesbideak ixten zaizkionean, eta aire libratu baina berriz atxilotu hori dastatu ostean puzkerginaren albotik hanka egiten ez duen ohekidea, are barrez lehertu eta erantzun egiten duena, bidaide egokitzen hartzen dute, ohaidetzat hartzeaz gain.

Izan ere, gauza serioa da gasa. Airea, kea eta haizea bezain serioa, behintzat, bai. Baina alboan dauzkagunak maitatzea baino serioagoa ez da, ez, berton zein urrun edukita.